

Utikan idazle tristeak

HERRIKOIA ZEUKAN P. Z.-k, Gasteizko Plaza Berrian zegoen liburudenda ttikia, eta Mertxe, eta Mario, eta Xabi, eta... liburuak maite zituzten lagunak, konplizeak. Baina tamalez itxi egin zuten, itxiarazi, eta Baztertxo taberna zabaldu zuten gero... Akabo bertan egiten ziren ekitaldi eta liburu aurkezpen gogoangarriak –Maribi ere laster joango zen Axular liburudendarekin batera–. Jakintza liburudenda geratu zitzaion P. Z.-ri, eta Maite, eta Bego, baina megadendak nagusitu ziren gero, Elkar, Casa del Libro edo Boulevard merkatalgune tzarreko Abac, hain inperpersonal, hain hain... Eta P. Z. halako iragan minarekin zebilen, hotzikara batek etengabe zeharkatuko balu bezala. Aldi berriak zetozen. Eta hotsa zabaldu zenean Gasteiz hirigunean geratzen ziren zinema bakanak –Guridi eta Florida– apartamentuak egiteko itxiko zituztela, hotzikara zorabioa bilakatu zitzaion. Aurrerantzean non babestuko zen?

P. Z. noragabetuago ibiltzen hasi zen eta alde zaharreko katedral zaharraren ingurutik igarotzen zenean, zorabioa goragalea bilakatzeko zitzaion. Gogoan zuen eraikin xarmagarriari buruzko liburu bat enkargatu ziotela Arabako Aldunditik, liburua mimatu egin zuela eta halaxe argitaratu zela Pamielaren eskutik. Baina liburu hura apenas egon zen liburudendetako erakuslehoetan. Aldundian, kulturaren EA zego-



ZALDI ERO

ela argitaratu zen, baina berehala PP heldu zen, eta akabo liburua: bazirudien aurrekoak egingo guztia garbitu beharra zegoela, guztia katedrala salbu. Kultur Etxean ere lehenago hamaika ekitaldi egin ziren –kasik gehiegi–, baina PPren etorrerarekin batera amaitu ziren denak. Eta tamala izan zen: PPko Oyarzabalek adierazi zuen bere alderdia nazionalistak baino gehiago saiatuko zela euskararen alde, eta P. Z.-k, xalo samar artean, sinetsi nahi izan zuen –sinetsi nahi edo (orain atzera etorri da EA eta berriro ere euskarazko ekitaldiak itzuli dira Kultur Etxera. Nola deitu behar zaio horri: kultur politika, kultura politizatua, menpekotasun kulturala...?). Eta P. Z.-ri goragalea ongieza bilakatzen zitzaion jakiten zuelarik katedralako fundaziotik Pablo Coelho, Boris Izaguirre, Mercedes Milá edo Rosa Villacastin bezalakoak gonbidatu zituztela hitzaldiak eskaintzera.

«
PPko Oyarzabalek adierazi zuen
bere alderdiak nazionalistak baino
gehiago saiatuko zirela
euskararen alde
»

NORAGABETU ETA MINGULIN, P. Z. egun batez Eltziegon agertu zen. Ardoak gero eta gehiago berotzen zion barrena, denbora gutxirako bazen ere bihozberritu egiten zuen. Baina heldu da Frank Ghery-ren eraikuntza titaniozkora eta, Kixote haize erroten aurrean bezain ezindu, goragalea bihotzondokoa bilakatu zaio goardiak sarrera debekatu di-

nean. Bertan ostatua izan ezean, bisita programatu bat izan ezean, ez ardo ondurik ez pattar indarberritzailerik. Eta are gehiago goibelduko zen, baina hara non une hartantxe auto ofizial bat irten zen, eta handik gutxira, oinez, orduko diputatu Rabanera, EArekin zein PPekin kulturaren lardaxkan betikotu den funtzionario batekin eta, azkenik, Ken Follet musugorriarekin! Funtzionarioak P. Z.-ri ezikusia egingo ziokeen, baina hain zegoen hurbil, eta Rabanera beti izan da hain jendearekikoa, azkenean elkarren aurkezpenak egin behar izan zituzten. Funtzionarioak orduan oroitu zuen P. Z.-k liburu bat egin zuela katedral zaharrari buruz. Eta hori esan eta Ken Folleten begi berez dir-daitsuetan txinpartak ateratzea, dena bat izan zen. “Deituidazu!”, agindu zion aurkezpen txartela ematearekin batera, eta begirakune kasik mistikoa titanioari zerion mahats heldua-



irudiak:
Antton Olariaga

ren koloreari josi zion. “Ez ahaztu!”.

Epifania baten gisara, titanioak zeruaren gorritzat eta gero iluna islatzen zituela, P. Z. ez zerurako ez lurrerako geratu zen. Zinez ikusiko al zituen pertsona haiek, idazle jainkotuak benetan hitz egin al zion? Txartela, baina, eskuetan zeukan, eta begi arranpalokekin begiratzten zion. Hurrengo batean deitu ere egin zion, eta idazleak lehenbailehen Galesera joateko agindu zion, eta ez ahazteko liburua eramatea. Dena tximistaren pare gertatu zen: bat-batean Galesko landetxe zoragarri batean zegoen, Ken Follet Eltziegoko ardoarekin ari zen beraren alde topa egiten, eta denen artean –batik bat besteek– idatziko zuten best-sellerraren alde. Eta P. Z.-ri ez zitzaion kostatu bere zalan-tzak uxatzea: idazle handiarentzat lan egingo zuen, giro onean eta diru sari ederrarekin, eta harrezkero nora joan, han erakutsiko zuen maisuaren irri firfira bera. Zoriontsu zen. Akabo aldi ilun eta hertsia hura. Aldi berriak zetozen.

Apur bat urduritu zen, hala ere, liburua amaitu eta gaztelaniazko aurkezpenaren eguna hurbiltzean. Gasteizera Ken Folletekin itzuli, eta bere maisuarekin otordu eta otoruntza guztietan ibili zen, irri firfira ahoan. Haren eskultura inauguratu zuten, hitzaldira aurreko idazleen saio guztietara baino askoz ere ikusle gehiago joan ziren, eta Dato kale-raino luzatu zen sinadurazaleen ilara: bai, ederra zen bere hitzak, bere hitzaldia maisuaren ahotan entzutea. Portalon jatetxe bikaina beraientzat bakarrik zabaldu zuten eta *petit comité*n dastatu zituzten hango jaki deliziosoa.

BIHARAMUNEAN ELTZIEGORA itzuli ziren eta oraingoan P. Z.-k ate guztiak izan zituen zabalik. Sartu bezain laster hamaiketako eskaini zieten –jatekoak zerrendatzeak luze, oso luze joko luke– eta idazlearen jaiotza urteko ardoa zabaldu zuten, hots, 1949koa. Eta topa egin zuten, eta norbaitek esan zuelarik Noah Gordon-ek Kataluniako mahasti eta upelategietan oinarritutako nobela argitaratu berria zuela, “Kabroial!” atera zitzaion galestarrari. P. Z.-k ere, gero eta hitzunago, gaineratu zuen Woody Allenek azken filma errodatzeko Bartzelona aukeratu zuela, eta EAJko agintariren batek esan egin zuen zenbat zerotakoa zen hiriak luzatutako eskupekoa, eta azti ibili beharra zutela hurrengo Gasteizen egin zezan. Baina orduan PSE-EEko agintari batek hartu zuen hitza eta, ezker begia Folleti kliskatuz, sekretua jakinarazi zuen: “Hurrengo best-sellerraren



kokalekua Iruña-Veleia izango da, hemen, Araban?”. EAJkoak listua irentsi zuen, baina ordu-rako Ken Folletek kopa altxatu zuen eta nobela berriaren alde topaka zebilen. P. Z. pozarren zegoen, txispaturik ere bai eta EB-IUko zinegotzi bati entzun zion eskulturarenak hautsak harrotu zituela, bai, baina dena aurretik presta-

tua zegoela kultureta jendearen haserrea desbideratzeko eta nobelari berari buruzko eztabaida ekiditeko.

Azken batean sortzaile jendez inguratua zegoelakoan, P. Z. harropozturik joan zen komunera, eta are gehiago poztu zen zereginak egin bitartean argi automatikoa itzali ez zelako. Gorroto zuen txiza egin bitartean komuneko argia itzaltzea. Gero, aurpegia freskatu bitartean, ispiluak islatzen zuen bere irri firfirari erreparatu zion. Argi zuen beste zenbait urtetarako lan faltan ez zela egongo. “Ze tristeak idazle tristeak”, pentsatu zuen bere artean. Eta pentsatzen jarraitu zuen harrezkero *party*etara sarriago joan beharra zeukala, Britainia Handira bueltan Xabi Alonsorengana ere inguratzea komeni zitzaioa, futbol girotxoak on egingo ziola inondik ere, eta, finean, maisuarentzako hurrengo nobela idatzi eta gero, han eta hemen agertu eta harreman mediatikoren bat izan eta gero, bere aldetik idazten jarraituko zuela. *In english, of course*. Ispiluaren aurrean, *Amaierarik gabeko mundua* liburuaren kontrazaleko argazkian Folletek erakusten duen postura bera itxuratu zuen. Irri firfira algara bilakatu zitzaion. P. Z. pozak zorutzen zegoen. ■

«

Ken Folleten eskulturarena
aurretik prestatua zegoen kultureta
jendearen haserrea desbideratzeko
eta nobelari berari buruzko
eztabaida ekiditeko

«